



2024ko urriaren 19an **Bularreko Minbiziaren Munduko Eguna** ospatuko da.

Bularreko minbizia da emakumeen artean diagnostikatuena. Gainera, tumore mota horrekin hiltzen dira emakume gehienak (6.677 emakume 2023an). Urtetik urtera kopuruak handitzen ari dira, eta Sociedad Española de Oncología Médica (SEOM) delakoak dioenez, 2024n ustez 36.395 kasu berri diagnostikatuko dira. Adituek ohartarazten dute datorren hamarkadarako minbizi epidemia bat izango dela **ez bada ikerketa lehenesten**. Minbizi kasuen kopurua % 60 bitarte handitu daiteke datozen 20 urteetan eta % 77 bitarte 2050ean. Ezin dugu ahaztu bularreko minbiziak gizonezkoei ere eragiten diela (% 1).

Datuak argiak dira, bularreko minbizia ez da arrosa . Iraingarria da zenbait enpresak berain produktuak edo zerbitzuak sustatzeko erabiltzen duten irudi garbiketa arrosa. Jai giroan diru kopuru itzelak biltzen dituzten sustapen, ekitaldi eta ikus-entzunezkoen publizitatea egiten da, gaixotasunaren egiazko aurpegia azaltzen ez duten irudiekin, eta ahalegin pertsonala garesten duten kanpainak egiten dira, aztertu gabe zenbateko beharra dagoen **Osasun Publikoak zerbitzu espezializatuak laguntzeko eta baliabide nahiko emateko minbizi diagnostikoei modu integrean ekiteko**.

Minbizia izatea ez da arazo indibiduala. Beharrezkoa da gaixotasuna hobeto ulertzea eta tratamendu hobekak garatzeko gehiago ikertzea. Bularra ukitu behar dela eta bizimodu osasungarria eraman behar dela esatea besterik gabe, prebentzioa eta detekzioa horretara mugatuz, ardura gaixoengan jartzea da, minbizia izatea beraien errua izango balitz bezala eta beraien ardura sendatzea. **Minbizitik bizirautea ez da jarrera kontua, osasun publiko irisgarriako politikak egitea da;** doako politikak, berritzaileak garaiz eta emakume guztiengana iristen diren politikak, baita emakume txiroengana, bazterrean bizi diren eta laguntza nahiko izateko aukera ez duten horiengana.

Ikerkuntzak, tratamendu farmakologiko berritzaileek, ikuspegi integratiboak ariketa fisikoan, elikadurak, fisioterapiak, eta bestelako tratamendu osagarriek funtsezko eragina dute; Osasun Publikoan gaixoak artatzen dituzten profesionalak bitartekoekin, prestakuntzarekin eta aurrekontu nahikorekin hornitzea edo ez hornitzea, baliabide teknologikoak eta horien erabilera egokia ematea edo ez ematea, **bizitza ala heriotza** ekar dezakete.

Adierazpen honen bidez bat egiten dugu eztabaida hau elkarrizketa publikoa bihurtzea eskatzen duten minbizi diagnostikoa izan duten pertsonen eta elkarten aldarrikapenekin.